# ILP-LHE

Iniciativa Legislativa Popular
Legegintzako Herri Ekimena



## PORQUE ES DE JUSTICIA SOCIAL Y ES UN DERECHO, APOYA CON TU FIRMA ESTA ILP

- Para mantener el empleo ante el cambio de subcontrata
- Para obligar  a que se cumplan los convenios
- Para sancionar los incumplimientos de las empresas

**Esplotaziorik EZ!**

*Sinatu! Firma!*

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

## POR LOS DERECHOS LABORALES Y SOCIALES EN LAS SUBCONTRATAS DE LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS

**ELA ha puesto en marcha una Iniciativa Legislativa Popular que, una vez admitida a trámite, requiere la recogida de 30.000 firmas en la CAPV, en favor del mantenimiento del empleo y de unas condiciones mínimas en las subcontratas del sector público.**

### ¿Qué es una Iniciativa Legislativa Popular?

Es la única forma de participación popular por la que se consigue llevar al Parlamento la discusión de unas materias que, por el motivo que sea, no han sido tomadas en consideración por las fuerzas políticas o que sean de preocupación de quien plantea la ILP.

Desde el punto de vista democrático, la ILP fomenta la participación ciudadana en la vida pública; es una expresión de democracia participativa.



**Momento de la entrega de los pliegos en el registro del Parlamento para su sellado y numerado.**

### ¿Por qué se plantea esta ILP?

Los sucesivos recortes y reformas han precarizado las condiciones de trabajo, y con ello también las de quienes trabajan en las empresas contratadas por las administraciones públicas. La falta de garantías mínimas en los pliegos de condiciones genera niveles de explotación en muchos sectores, y está provocando:

- Pérdida de empleo por cambios en las empresas que realizan los servicios
- Reducciones del tiempo de trabajo en jornadas ya de por sí reducidas (debido a los recortes de la administración pública)
- Que el convenio colectivo deje de aplicarse al reducir los precios de licitación en los concursos
- Dobles escalas salariales porque se imponen peores condiciones a las nuevas contrataciones

Las administraciones subcontratan actividades del sector público con el dinero de todos y todas, con dinero público. Por tanto, son responsables de las condiciones laborales de todas las personas que trabajan en este ámbito y están obligadas a garantizar unos derechos laborales mínimos. Así se fortalece la calidad de los servicios públicos para toda la ciudadanía.



Firma! Sinatu!

Por ello, ELA plantea que se regule en una ley la forma en que las administraciones deben garantizar que se cumplan esos mínimos.

### ¿Por qué no se plantea para las subcontratas en el sector privado?

En el sector privado también se da una enorme precariedad en las subcontrataciones. Pero una ILP dirigida al Parlamento Vasco solo puede actuar en las competencias que tienen reconocidas las administraciones de la CAPV. Y la legislación laboral que afecta al sector privado remite al Estatuto de los Trabajadores que se legisla en el parlamento español.

### ¿Qué propone ELA como materia para esta ILP?

Que se obligue a las Administraciones Públicas a respetar unos mínimos laborales y sociales, cuando deciden subcontratar servicios. Las condiciones de trabajo y salariales de quienes trabajan en contratas pueden verse afectadas por dos vías: el convenio colectivo y los pliegos de condiciones.

En consecuencia, ello implica el respeto a lo establecido en los convenios colectivos, por un lado, y que los pliegos de condiciones contemplen cláusulas y derechos sociales mínimos, por otro.

### ¿Qué tipo de cláusulas sociales reclamamos?

1. Evitar la destrucción de empleo garantizando que los trabajadores y trabajadoras subcontratados tengan derecho a la continuidad en su trabajo (subrogación) ante cualquier cambio de empresa.
2. La garantía de unas condiciones de trabajo y salariales mínimas. ¿Cuáles? Las del convenio sectorial vigente, cuando exista, o las del último que haya estado vigente cuando el convenio sectorial no esté renovado.
3. Sanciones para las empresas que incumplan los anteriores requisitos y los derechos reconocidos en la legislación laboral.

### ¿Quién decide si acepta o no esta propuesta?

La decisión está en manos del Parlamento Vasco, es decir, en las de los grupos parlamentarios con representación en el mismo.

Se trata, por lo tanto, de una oportunidad para que el Parlamento y los partidos que lo componen demuestren su interés y preocupación con los principales problemas de los trabajadores y trabajadoras de los servicios que ellos mismos decidieron, en su día, poner en manos privadas.

Es el momento de que, más allá de los discursos, hagan frente a las consecuencias negativas de las reformas y la pérdida de los convenios colectivos. Pues bien, esta ILP les interpela a ellos. Tienen ante sí la posibilidad de dejar fuera de las subcontratas las consecuencias negativas que con tanto énfasis dijeron rechazar. Tienen la oportunidad de frenar la explotación laboral.

Por ello, te pedimos que apoyes esta iniciativa y firmes la solicitud.

**Porque es de justicia social y es un derecho, apoya con tu firma esta ILP**

# ILP-LHE

Iniciativa Legislativa Popular
Legegintzako Herri Ekimena



## JUSTIZIA SOZIALEKOA ETA ESKUBIDEA DENEZ, EMAIOZU LHE HONI ZURE SOSTENGUA ESKAERA SINATUZ

- Enplegua mantentzeko azpikontrata aldatzen denean
- Lan-hitzarmenak bete daitezen behartzeko
- Enpresen ez betetzeak zigortzeko

**Esplotaziorik EZ!**

Sinatu! Firma!

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Legegintzako Herri Ekimena

## ESKUBIDE LABORAL ETA SOZIALEN ALDE ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO AZPIKONTRATETAN

**ELAk Legegintzako Herri Ekimen bat abiarazi du. Behin izapidetzera onartu ondoren, Euskal Erkidego Autonomoan 30.000 sinadura bildu beharko dira ekimena aurrera ateratzeko. Ekimenaren helburua sektore publikoko azpikontratetako enpleguari eustea, eta gutxieneko baldintza batzuk bermatzea da.**

**Eta zer da "Legegintzako Herri Ekimen" delako hori?**

Herritarrek legegintzan parte hartzeko duten modu bakarra da. Horren bidez eramaten dira eztabaidatzera legebiltzarrera indar politikoek aintzat hartu ez dituzten gaiak edo LHEaren bultzatzaileen ardurakoak direnak.

Ikuspuntu demokratiko batetik, LHEek herritarren parte hartzea sustatzen dute esparru publikoan, demokrazia parte hartzailearen adierazgarriak dira.



**Paper-orriak zigilatuak eta numeratuak izateko parlamentuko errejistroan entregatu diren unea**

**Zergatik proposatu da LHE hori?**

Ondoz ondoko murrizketen eta erreformen ondorioz lan-baldintzak prekarizatu dira orokorrean, eta bereziki administrazio publikoetako azpikontratetan lan egiten dutenenak. Administrazio publikoetako baldintza-orrietan ez da gutxieneko bermerik jasotzen, eta horrek zapalkuntza areagotzen du hainbat sektoretan. Hona hemen eraginik nabarienak:

- Enpresa zerbitzu emaileaz aldatzeak lanpostua galtzea dakar
- Lanaldiak berez laburrak badira, are gehiago murrizten dira lan-denborak (herri-administrazioan egiten diren murrizketak direla-eta)
- Hitzarmen kolektiboa bete gabe uzten da, enkanteetan lizitazio-prezioak jaistearen ondorioz
- Soldata-eskala bikoitzak, kontratazio berriei baldintza txarragoak ezartzen zaizkielako

Herri-administrazioek sektore publikoko jarduerak azpikontratatzen dituzte denon diruaz, diru publikoaz. Herri-administrazioek, beraz, gutxieneko duintasunezko baldintzak eta eskubideak bermatu behar dizkiete esparru horretan lan egiten dutenei. Horrela ere, herritarrei eskaini beharreko zerbitzu publikoen kalitatea indartzen da.




Horregatik, administrazioek, gutxieneko maila horiek betearaztearren, izan dezaketen modurik onena legez arautzea da; eta hala egitea proposatu du ELAk.

**Zergatik ez sektore pribatuko azpikontratetan?**

Sektore pribatuan ere ikaragarrizko prekarietatea ematen da azpikontratetan. Baina Eusko Legebiltzarrari zuzendutako LHE batek soilik Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek aitortuta dituzten eskumenetan eragin lezake. Eta sektore pribatuari eragiten dion lan legediak Espainiako parlamentuak arautzen duen Langileen Estatutura igortzen du.

**Zer gai proposatzen du ELAk LHE horretarako?**

Zerbitzuak azpikontratatzea erabakitzen duten administrazio publikoak behartzea gutxieneko maila laboral eta sozial errespetatzera. Kontratetan lana egiten dutenen soldata eta lan baldintzak bi bidetatik eragin daiteke: lan hitzarmena eta basldintza-orrietatik.

Ondorioz, horrek dakar hitzarmen kolektiboetan ezarritakoa errespetatzea batetik, eta baldintza-orriak gutxieneko eskubide sozialak bermatzea klausuletan, bestetik.

**Nolako klausula sozialak eskatzen ditugu?**

1. Langile azpikontratatuei lanaren iraupena ziurtatzea (subrogazioa), emakida beste enpresa bati esleituz gero. Horrela ez da enplegurik suntsituko.
2. Gutxieneko lan- eta soldata-baldintzak bermatzea. Zeintzuk? Indarrean dagoen sektore-hitzarmenarenak edo, hitzarmena berritu ez den kasuetan, indarrean egon den azken hitzarmenarenak.
3. Zehapenak, aipaturiko baldintzak eta lan-legeetan jasotako eskubideak betetzen ez dituzten enpresentzat.

**Nork erabakiko du proposamena onartzen den edo ez?**

Erabakia Eusko Legebiltzarraren esku dago, hau da, bertan ordezkaritza duten legebiltzarreko taldeen esku.

Aparteko aukera da, beraz, legebiltzarrarentzat eta bertan dauden alderdientzat, beren ardura eta kezka erakusteko, azpikontratetako langileen arazo nagusiekiko, alderdi horiek berek utzi baitzituzten zerbitzu horiek esku pribatuetan.

Bada garaia hitzaldiez haraindi joateko, eta erreformetatik eta hitzarmen kolektiboen galeratik datozen ondorio txarrei aurre egiteko. Eta LHE honek zuzenean eragiten die alderdi politikoei. Orain dute aukera hainbeste maiseatu zituzten ondorio txarrak azpikontratetatik kanpo uzteko. Orain dute aukera langileen zapalkuntza geldiarazteko.

Horregatik eskatzen dizugu ekimen honi atxikitzeko eta eskaera sinatzeko.

**Justizia sozialekoa eta eskubidea denez, emaiozu LHE honi zure sostengua eskaera sinatuz.**


ELA EUSKAL SINDIKATUA